

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### **Udalak 2,2 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu dirulaguntzetara 2024an**

*Tokiko Gobernu Batzarrek onartutako beste gai batzuk: URArekin hitzarmena, Pasealeku Berriko feriala*

Donostiako Udalak guztira 2.217.459 euroko gastua onartu du 2024rako dirulaguntzetarako, udal sailen bidez banatuko direnak.

Donostiako Udalak, gizartearen kohesiorako eta herritarren partaidetzarako duten garrantziaz jabeturik, hiriko elkarteak eta haien jarduerak bultzatzen ditu eta, hala, bere udal atalen aurrekontuen bidez, dirulaguntzak jasotzeko aukera eskaintzen die hiriko talde, fundazio eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei, hainbat arlotan egiten dituzten ekintzak gauzatzen laguntzeko asmoz. Izan ere, talde horien ekimenek donostiarren bizi kalitatea hobetzen laguntzen dute eta, batzuetan, herri erakundeek proposaturiko ekimenen osagarri izaten dira.

Dirulaguntza horien bidez, Gobernu Programaren konpromisoei heldu eta herritar demokratikoen balioak bultzatzen dituzten proiektuak sustatu nahi dira. Izan ere, hiriek leku egokia eskaini behar diete pertsoneri aurrera egiteko, ingurunea aintzat hartu eta errespetatzeko, beren jakinduria eta kultura handitzeko eta errespetuan eta tolerantzian oinarritutako mundu baketsu baten konpromisoa hartzeko.

Alor ugari landu nahi dugu hirian diharduten gizarte eragileekin batera. Hona horietako helburuetako batzuk: giza eskubideak errespetatzea, oroimen historikoa, emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartzea, hiriko bizitzan txertatzeko zailtasunak dituzten taldeei laguntzea, herriguneei errespetua bultzatzea, euskara sustatzea, herritarrek gizarteari dagozkion alor guztietan esku hartzea, boluntarioen lana sustatzea, iraunkortasuna bultzatzea, balioetan hezte eta belaunaldi eta kultura desberdinek elkarrekin bizitzen jakitea.

Sustapen ekimen honen garrantziak eta bertan parte hartzen duen gizarte talde zabalak, beharrezkoa egiten du udal atal desberdinak ahalik eta koordinazio handiena lortzeko formulak planteatzea, udaleko baliabide ekonomikoen kudeaketan eraginkortasun handiena bermatuz eta hiritarrei traturik egokiena eskainiz.

Koordinazio hobea lortu nahian aspaldidanik irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendutako diru laguntzen deialdi bakarra egiten da. Aipatutako deialdiak dokumentu bakar batean biltzen ditu Gizarte Ekintza, Herri Partaidetza, Berdintasuna, Gazteria, Lankidetzak, Giza Eskubideak eta Oroimen Historikoa, Osasuna eta Ingurumena, Euskara eta Kultur Aniztasuna atalen oinarriak.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Gobernu Batzarrak oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta ordutik aurrera irekiko dira eskabideak egiteko epeak.

### **URArekin hitzarmena**

Tokiko Gobernu Batzarrak Uraren Euskal Agentziaren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onartu du, Loiolako kuartelen inguruan Urumea ibaian uholdeen aurka babesteko eta ingurumena egokitzeko proiektua idazteko.

Honen bidez, URAK konpromisoa hartzen du beharrezkoak diren azterketa hidrauliko eta uholde-arriskuaren azterketa guztiak egiteko; proiektua idazteko lanak kontratatze eta zuzentzeko; eta kontratazioaren eta lanen zuzendaritzaren ondorengo kostuak bere kontura finantzatzeko borondatea islatu du.

Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziari eskura duen eta proiektua idazteko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emateko, eta Uraren Euskal Agentziarekin teknikoki lankidetzan aritzeko: hitzarmenaren xede diren azterlanak eta proiektuak egiten diren bitartean.

Proiektua idazteko aurrekontua 300.000 €-koa izango da, URAK ordainduko duena, eta egikaritzeko epea 10 hilabetekoa.

### **Pasealeku Berriko feriala**

Tokiko Gobernu Batzarrak Urbycolan, SL enpresari Pasealeku Berriko ferialaren elektrifikazio proiektuko obren kontratuaren 1. sorta (obra zibila: zangak, eroanbideak, egitura, zoladura, etab.) esleitzea onartu du. Gauzatzeko epea bi hilabetekoa da eta aurrekontua 259.769 eurokoa.

Donostia, 2024ko otsailaren 20a